**COVID-19 pandemiari buruzko argitalpen berezia**
**2020 Martxoa**

# Arreta Soziosanitarioko Buletina

## Erakundeen arteko koordinazioa COVID-19 pandemiaren aurrean arreta soziosanitarioa emateko

### OSASUN AHOLKUA
### 900 20 30 50




Euskadin, COVID-19 koronabirus kasuen intzidentzia gero eta handiagoa denez, eta eragindako pertsonen kopurua handitu daitekeelakoan, arreta sozio sanitarioa koordinatzeaz eta hornitzeaz arduratzen diren erakunde eta entitateek funtsezko alderdiak partekatu nahi dituzte gaixotasuna prebenitzeko eta tratatzeko neurriak modu koordinatuan lantzen jarraitzeko.

Euskadiko koronabirusen epidemiaren jarraipena egiteko eta horri aurre egiteko erakundeen arteko koordinazioa, Erakunde arteko Koordinazio Mahaiak garatzen du. Mahai horren buru Iñigo Urkullu lehendakaria izan zen martxoaren 9tik, eta bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzako sailburuak, hiru lurraldeetako ahaldun nagusiak, foru-aldundietako Gizarte politiketako eta Kultura eta Kiroletako diputatuak eta Eudeleko presidentea.

Erakunde arteko Koordinazio Mahaiaren mende beste bi mahai daude: Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Mahai bat eta "Koronabirusen Jarraipen Mahai" bat. Azken hau Osasun Sailak eta Osakidetzak osatzen dute eta egunero biltzen dira.

Erakunde horiek pandemiari aurre egiteko jarduerak garatzen ari dira, sailen eta erakundeen arteko koordinazio sendoaren ildoan. Pandemia horren ondorioek osasun publikoaren esparrua gainditzen dute, eta euskal herritarren gizarte, lan eta ekonomia-dimentsioei eragiten diete.

Osasun Saila eta Osakidetza, Gaixotasun Berrien Aholku Batzordearekin eta Gertakari Planen Batzordearekin koordinatuta, urtarriletik ari dira jarduteko gomendioak eta esku-hartze espezifikoak garatzen. Etengabe eguneratzen dira, kutsatze berriak prebenitzeko eta kutsatutako pertsonak artatzeko.



Azken helburua da herritarren osasun arreta onena bermatzea, eta, gizarte eta osasun beharrak batera gertatzen badira, koordinazio egokia garatzea gizarte eta osasun-laguntzako eremuetako profesionalen artean.



Egungo egoeran, kolektibo ahulenak babestea, batez ere adinekoak, eta haien autonomia mugatuta dutenak (desgaitasuna dutenak, gaixotasun mentala dutenak, etab.) dira sistema sozio sanitarioaren lehentasunetako bat.

Helburu honekin, prebentziorako eta esku hartzeko gomendioak eta jarraibideak egiten dira. Etengabe eguneratzen dira, arreta sozio sanitarioko eremuetara, asistentzia-profesionaletara, arretaren subjektu diren pertsonetara eta zentro sozio sanitarioetako senide eta bisitariengana zuzenduta.

Eguneratze prozesu horren barruan, foru erakundeek, toki erakundeek eta/edo zentro kudeatzaileek Osasun Sailak eta Osakidetzak landutako edukiak egokitzen dituzte, kolektibo ahulenen babesa eta arreta bermatzeko.

COVID-19k, alderdi askotan (transmisio-bideak, morbi-hilkortasunaren datuak), gripearen birusen oso antzeko profila du. Horregatik, adin handieneko eta komorbilitatea duten pertsonak dira arrisku handiena dutenak infekzioa hartuz gero. Era berean, funtsezkoa da adineko pertsonak, ezinduak eta, oro har, mendekoak zaintzen dituzten kolektibo profesionalak babestea, bai sanitarioak, bai sozialak.

Informazio horrekin, Euskadiko Koordinazio Sozio sanitariotik erakundeen arteko konpromisoa, konpromiso profesionala eta zibikoa indartu nahi dugu, koronabirusaren epidemiari aurre egiteko

**Euskadiko Koordinazio Soziosanitarioko Taldea**

## Erreferentzia interesgarriak

### Osasun Saila eta Osakidetza (Eusko Jaurlaritza)

Koronabirusaren inguruko informazioa

- Egungo egoera
- Ezarritako-neurriak
- Koronabirusa geldiarazteko indartze-neurriak
- Ohiko galderak
- Jarduteko protokoloa
- Korobabirusa: prebenitzeko gomendioak (bideoa)
- Deskargatzako materiala
- Mapa interaktiboa
- Koronabirusa: Eskuak behar bezala garbitzeko jarraibideak
- Osasun Sailaren eta Osakidetzaren gomendioak EAE-ko zentro soziosanitarioentzat
- Euskadiko zentro soziosanitarioentzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren gomendioak. Zentro soziosanitarioetan bisitak egiteko gomendio zerrendaren eguneraketa
- Osasun Sailak eta Osakidetzak Udal Esparrurako emandako gomendioak. COVID-19. Adinekoen etxe eta klubetarako azken informazioa
- Euskal Autonomia Erkidegoko Egoitza-zentroetarako gomendioak, neurriak eta jardun-arauak, COVID-19 KORONABIRUS kasuak agertuz gero (gomendio horiek alda daitezke gaixotasunaren bilakaeraren arabera)
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeetarako gomendioak, neurriak, eta jardun-arauak, SARS-CoV-2 KORONABIRUS kasuak agertuz gero (gomendioak alda daitezke gaixotasunaren bilakaeraren arabera)



## Erreferentzia interesgarriak

### Arabako Foru Aldundia

COVID-19ren harira hartutako prebentzio neurriak

### Bizkaiako Foru Aldundia

La Diputación Foral de Bizkaia centra en las personas mayores las medidas preventivas ante el coronavirus en Euskadi

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiak foru-sareko adinekoen egoitzetara eta eguneko zentroetara, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideetara ere, COVID-19 prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko jarraitu beharreko protokoloa

https://multimedia.gipuzkoa.eus/media/event/13493560/EUSK%20Protokoloa%20(Prentsa%20oharra).docx

### EUDEL

Osasun Sailaren eta Osakidetzaren udal gomendioak

Udal esparrurako gomendioak

- Udal titulartasuneko egoitzetako eta eguneko zerbitzuetako artapen-langileentzako gomendioak.
- Inoren laguntza behar duten pertsonentzako etxez etxeko arreta zerbitzuko (EEAZ) artapen-langileentzako gomendioak

### Bilboko Udala

Koronabirusa, Zer egin dezatek nire burua babesteko?

### Donostiako Udala

Koronabirusaren aurrean informazioa eta gomendio orokorrak

https://www.donostia.eus/home.nsf/0/7E77A831504BFB5FC125852800489C4E?OpenDocument&idioma=eus

**Gasteizko Udala**

## Udalak COVID-19ren eragina murrizteko prebentzio-neurriak handitu ditu

https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/77/50/87750.pdf

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

## Erreferentzia interesgarriak

### Organización Mundial de la Salud (OMS)

- Preguntas y respuestas sobre la enfermedad por coronavirus (COVID-19)
- Consejos para la población acerca de los rumores sobre el nuevo coronavirus (2019-nCoV)
- Preguntas y respuestas sobre prevención y control de las infecciones para los profesionales sanitarios que atienden a pacientes con infección presunta o confirmada por 2019-nCoV
- COVID-19: la FICR, UNICEF y la OMS publican una guía para proteger a los niños y apoyar la seguridad en las operaciones escolares
- Key Messages and Actions for COVID-19 Prevention and Control in Schools March 2020

### Centro Europeo para la Prevención y el Control de las Enfermedades (ECDC)

- Information Leaflet Template on COVID-19
- Criterios de alta para los casos confirmados de COVID-19: ¿cuándo es seguro dar de alta los casos de COVID-19 del hospital o finalizar el aislamiento en el hogar?

### Centro de Coordinación de Alerta y Emergencias Sanitarias (CCAES). Ministerio de Sanidad, Gobierno de España

- **Información general para la ciudadanía** (en continua revisión)
- **Documentación técnica para profesionales** (en continua revisión)

**Editore Taldea**
Lucía Iñigo, Aitor Lopez de Aberasturi, Miren Luzarraga eta Catarina Paz

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorrean xedatutakoa betez, argitalpen hau bidaltzeko zein beste argitalpen batzuen berri emateko zure baimena eman diguzu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, **baja hemen** eman dezakezu coordinacionsosa@bioef.org helbidera idatzi ezkero. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza, Arreta Soziosanitarioa, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Informazio honetara iritsi zara eta interesgarria iruditu zaizu? **Buletin hau ere jaso eta Arreta Soziosanitarioari buruzko informazioarekin egunean izatea nahi duzu?** Gure webgunean **alta eman dezakezu** esteka honen bidez: http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/